

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2017ko abenduaren 14ko EBAZPENA, 2017-2018 ikasturtean doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako laguntza berriak ebazten dituen.

Hezkuntza sailburuaren 2017ko maiatzaren 23ko Aginduak, 2017-2018 ikasturtean doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako laguntza berriak emateko eta hauek berrizteko prozesua arautu eta deitu zituen.

Agindu horren 32.artikuluaren arabera, laguntzak ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakar eta espresuaren bidez gauzatuko da, ebaluazio-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta berariazko aholku batzordeen ebaluazioa eta ebaluazio-batzordeak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programarako dirulaguntzak 2017-2018 ikasturterako, jaso behar duten ordainsari gordina, ezarpen zentroa eta horiek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Kontratuak 12 hilabeterako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, lerroak, arloak eta lehentasunaren arabera zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 32. artikulua zehazten duen bezala beteko dira

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz

Laugarrena.- IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratzearen arrazoiak zehaztuz

Bostgarrena.- 2017ko maiatzaren 23ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsua jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduak 14


Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea
ADOLFO MORAIS EZQUERRO